



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak Andres Isasiren figura eta musika omentzeko kontzertua eskainiko du, haren jaiotzaren 130. urteurrenarekin bat etorriz

- Kontzertua asteazken honetan, urriaren 28an, izango da, 19:30etik aurrera.
- Mercedes Albaina Musikako Goi-mailako Tituludunak Isasiri buruzko sarrerako azalpena emango du, musika emanaldia hasi aurretik.
- Isasiren musika Jone Martínez sopranoaren eta Itxaso Sainz de la Maza pianistaren eskutik helduko da lehenengo, eta Aitzol Iturriagagoitia biolinistaren eta Enrique Bagaría pianistaren eskutik ondoren.

Bilbon, 2020ko urriaren 26an. – **Andres Isasi** 1890eko urriaren 28an jaio zen Bilbon. Etzi, asteazkena, urriak 28, 130 urte beteko dira jaio zenetik, eta Arriaga Antzokiak kontzertu bat eskaini nahi dio, musikagile eta poeta bikainaren figura eta musika omentzeko.

Hitzordua **Mercedes Albaina** Musikaren irakaslearen eskutik abiatuko da, izan ere “Andres Isasiren bizitzaren azalpena. Forma anitzeko sormena” izenpeko hitzaldi laburra eskainiko du sarrera gisa. Albaina Musikako Goi-mailako Tituluduna da, Aisialdiko eta Giza Garapeneko Doktorea eta Psikologian lizentziaduna, eta musika zabaltzen laguntzen du, hitzaldi, idazki eta proiektu didaktikoen bidez.

Kontzertua hitzaldiaren ostean hasiko da, eta bi zati izango ditu. Lehenengoan, **Jone Martínez** sopranoak eta **Itxaso Sainz de la Maza** pianistak Isasiren *Lieder-Album Op.16* (Heinrich Heineren testuekin), 1913ko lana, interpretatuko dute. Ondoren, Arriagako eszenatokian **Aitzol Iturriagagoitia** biolinista eta **Enrique Bagaría** pianista arituko dira, eta fa minorreko piano eta biolinerako sonata (Op. 25) eskainiko dute, euskal musikaren eta gehien miretsi zuen egileetako bat izan zen Straussen eraginak batzen dituen Isasiren konposizio-lana (1917).

Isasiri eta bere lanari buruzko pintzelkadak

Isasi Getxon hil zen 1940an, artean berrogeita hamar urte bete barik zituela, bihotz-arnas arazo kronikoen ondorioz. Hala eta guztiz ere, euskal musikaren sortzaile bikaina eta sinfonia egile nagusietakoa izateko denbora izan zuen; *Lieder* asko idatzi zituen eta baita pianorako, ganberarako eta abesbatzetarako lan ugari ere.

Bere ekoizpena hiru etapa handitan bana daiteke. Lehenengoa nerabezaroan idatzitako lanak dira, eta horietatik parte txiki bat baino ez da gorde, baina bere idazkera dotorea erakusten dute. Bigarren etapa bere “ziklo germanikoa” izango litzateke, Berlinen ikasten eman zituen urteetan, bere ekoizpen sinfonikoaren zati nagusia konposatu zuen garaian, abiatuta. Eta, azkenik, Getxon ia erretiratuta egin zituen urteetan. Azken garai horretan oraindik orkestrarako lanak idatzi bazituen ere,

pianorako piezen konposizioan zentratu zen, eta, bere azken urteetan, ahotserako eta pianorako Liederrak idatzi zituen, eta baita musika erlijiosoko erreperitorio labur bat ere, abesbatzarako, “a capella” edo organoz lagunduta abesteko.

Andres Isasiren 130. urteurrena

EGITARAUA

Sarrerako azalpena:

Mercedes Albaina:

Andres Isasiren bizitzaren azalpena. Forma anitzeko sormena

1. partea:

Sopranoa: **Jone Martínez.**

Pianoa: **Itxaso Sainz de la Maza.**

Andres Isasi, 1913

Lieder-Album op.16

Heinrich Heineren testuak

- Lass ab!
- Liedchen
- Udaberria
- Der Phönix
- Sie tanzt
- Había una vez un rey...
- Die Rose, die Lilie, die Taube, die Sonne

2. partea:

Biolina: **Aitzol Iturriagagoitia.**

Pianoa: **Enrique Bagaría.**

Andres Isasi, 1917

OP.25 biolinerako eta pianorako sonata fa minorrean

Allegro, parte bat errezzitatuta

Adagio

Allegro molto

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

comunicacion@teatroarriaga.eus

www.teatroarriaga.eus